

Jesuxo Mari Ariznabarreta

LABEKO KOMUNIKAZIO ARDURADUNA

Aukera bakarra: hondatutakoa berreraiki

ETAK su-etenaren amaiera iragartzeak ofizialtasuna eman dio konponbide prozesuaren etenari, baina aurretik apurtuta zegoena agerian utzi besterik ez du egin iragarkiak.

Bagenekien udal eta foru hauteskundeak oinarritzko baldintza demokratikoetan burutzea test garrantzitsua izango zela prozesuaren osasuna neurtzeko. Baina, Batasuna ilegalitatean mantentzeak, ASB ez legeztatzeak eta EAE-ANVren hautagai zerrenda gehienak legez kanpo uzteak argi utzi dute ez dela test hori gainditu, eta aurretik argi bazegoen ere, ondoren, Ezker Abertzaleak lortu duen boto kopurua ikusita eta zenbat boto eta hautetsi baliogabetu diren kontuan hartuta, are nabarmenago geratu da hauteskundeok ez dutela gutxieneko baldintza demokratikorik bete, eta osatuko diren udal eta diputazioetako gobernu gehienek ere ez dutela zilegitasunik izango herritar askorentzat.

Era berean, nahiz eta konponbiderako alderdien mahairik ez den osatu, elkarrizketak burutu dira hilabete luzetan konponbiderako ezinbestekoak diren hiru esparru politikoren artean. Baina PSOEk eta EAJk muzin egin diote, behin eta berriro, Ezker Abertzaleak mahai gainean jarritako proposamenari, eta batak elkarrizketak despolitizatu eta lurraldetasuna eta erabakitze eskubideez hitz egitea ekidinez, eta besteak joko oso maltzurra erabiliz, porrotera eraman dute elkarrizketa eta negoziazio ahalegina.



DANI BLANCO

Noizbait konturatu beharko dugu prozesuak ez direla hasten edo amaitzen su-etenen iragarpen edo hausteekin, ezta beste edozein eragileren ekimen, neurri edo jarrerarekin. Horiek guztiak prozesuaren baitan dauden gorabeherak dira, nahiz eta sarritan gogorrek edo ulergaitzak izan. Kontua zera da, gatazka politiko baten konponbiderako aukera bakarra elkarrizketa eta negoziazio prozesu demokratikoa dela, eta mila aldiz hankaz gora jarri arren, mila aldiz berreraiki beharko dugula, azkenean akordio politikoa eta benetako bakea lortu nahi badugu.

Egoera oso konplexu eta larrian gaudela onartu behar dugu, baina denborarik galdu gabe ekin behar diogu errealitate gordin honen gainean prozesua berreraikitzeari. Berriro zerotik hasi beharko dugula dirudi, baina espero dezagun hamalau hilabetetan zehar prozesuaren baldintza objektiboak egon direnean bakoitzak bere ikasgaiak atera izana.

Horrez gain, funtsekoa izango da berriro ere herritarrek konponbideraren alde aitzindaritza hartzea, eta iazko apirilaren 1ean Bilboko kaleetan erakutsitako indarra berreskuratu eta prozesu demokratikoaren aldeko olatu erraldoia bultzatzea. Gaur atzo baino premiazkoagoa da. ■

«
Espero dezagun hamalau
hilabetetan zehar prozesuaren
baldintza objektiboak egon
direnean bakoitzak bere
ikasgaiak atera izana
»

TXANDAN

Edu Zelaieta



Bizi izan du berriki Euskal Herriak batasun politikorik, askok eta askok zirkunstantzia hau ezeztatzen duten arren. Alabaina, paradoxikoa da Euskal Herriak

XXI. mendean lortutako batasun hau Espainiari eta Frantziari –horrela, biluzian, *estatu*-eta aipatu gabe– esker suertatu izana. Denbora laburrean izanik ere, Iparraldeko eta Hegoaldeko bizilagunok kanpaina politikoan murgilduta egon garelako. Herria osatzeko bidean gaude, nonbait.

Hauteskundeetako emaitzek gutxi gora-behera betikoa adierazi dute. Batetik, Hegoaldea sozio-politikoki oso kon-

Cogitas ergo es

plexua dela eta mundu guztiak Nafarroari lizunki begiratzen diola. Bertetik, Iparraldean europarrok ez dugula ongizatea Afrikatik heldu direnekin partekatu nahi, zenbait borroka sozialen ondorioz erdietsitako eskubideak geuretzako pribilegio bilakatuz.

Politikoez hitzetik hortzera erabiltzen duten pluraltasuna kudeatzeko garaia da. Hala ere, ondokoak onartzetik oso urrun gaudela ikusita, proposamen bat egin nahi dut pedagogia zaharrera joz: dabilzala politikoak eta herritarrek *cogitas ergo es* elkarri kantatuz, denok lezioa buruz ikasten dugun arte. ■